



2016KO EUROPAKO HIRIBURUA IZATEKO PROIEKTUA BULTZATZEKO ACBA-REN ETA DONOSTIA HIRIAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN PROTOKOLOA

Donostian, 2015ko otsailaren 11ean

BILDU DIRA

Alde batetik, Donostiako alkate Juan Karlos Izagirre Hortelano jauna, hiri horretako Udalaren izenean eta haren ordezkari gisa, 2015/02/06 ko Gobernu Batzordearen akordioa betez.

Eta, bestetik, ACBAko presidente Jean-René Etchegaray jauna, erakunde horren izenean eta haren ordezkari gisa, 2015/01/16ko *Bureau de l'Agglomération*-aren akordioa betez.

Bi aldeek aitortu diote elkarri Protokolo hau formalizatzeko beharrezko legezko gaitasuna, helburua interes komunekoa honen baitan lankidetzaz hitzarmen bat gauzatzeko esparru orokor bat ezartzea izanda.

HONAKO HAU AZALDU DUTE

LEHENIK.- 2016an Europako Kultur Hiriburu izango da Donostia, Poloniako Wroclaw hiriarekin batera. Hori dela-eta, Euskal Eurohiriak rol benetan garrantzitsua beteko du, proiektuak berak adierazten duenez: «Donostia eta Biarritz arteko mugaldekoko eremuan, mende luzez hainbat gerra izan diren lekuan, Atlantikoko korridorearen erdi-erdian, kokapen geografiko estrategikoan duen eurohiria eraikitzen ari dira gaur erakundeak. Halako hiri bat egon ahal izateak bakarrik Europa berri bat birpentsatzen laguntzen digu».

BIGARRENIK.- Euskal Eurohiriak proiektuan duen protagonismoak aukera ugari jarri dizkigu mahai gainean mugaren bi aldeetako hirien artean hainbat proiektu abiarazteko, besteak beste, kulturaren, turismoaren eta mugikortasunaren arloan. 2016 aukera paregabea da Eurohiriaren esparruan buru-belarri lan egiteko, arlo ezberdinetako arduradunen artean harreman-sistema bat sortuta, ikuspegi partekatua eraikita eta hura



Eurohiriaren zereginei bete-betean eragiten dieten eremuetan aplikatuta. Protokolo honen helburua Euskal Eurohiriko hainbat hiriren artean lankidetzak sakonago eta egonkorrago bat lortzeko esparrua ezartzea da. Alde batetik, Baiona, Biarritz, Angelu, Bidart eta Bocau, ACBAren bitartez, eta, bestetik, Donostia. Azken xedea akordioa egun Euskal Eurohiria osatzen duten beste udalerrri batzuetara hedatzea da, helburuak berberak izanik.

HIRUGARRENIK.- Protokolo honen bitartez Kulturaren Europako Hiriburua proiektuaren mugaz haraindiko alderdia garatzea ahalbidetuko duten lankidetzarako ardatzak eta lanerako metodologia bat zehaztu nahi ditugu, baita mugaren bi aldeetako eragileen artean lankidetzak proiektu konkretuak gauzatzea ere. Horrekin lotuta, ACBA lurraldeko eragileek Donostiakoekin elkarlanean proiektu mugakideak garatzea da helburua, zeinak Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren programazio ofizialean eta ez ofizialean sartu ahalko diren.

LAUGARRENIK.- Balizko baterako lan-eremuak asko dira, eta askotarikoak (turismoa, mugikortasuna, ekonomia, hiri-garapena, ingurumena, eta abar), baina batzuk zuzenean daude lotuta Donostia 2016 Europako Hiriburuarekin, etorkizunerako ondare ere izan daitezkeenak. Kultura, turismoa eta mugikortasunaren hobekuntzaren tankerako arloak funtsezkoak dira bi lurraldeek helburu berberak bilatzen dituzten lankidetzak gauzatzeko. Arlo horiek garatzeko, ezinbestekoa da erakunde arteko lankidetzak eraginkor eta zehatza ahalbidetuko duten tresnak izatea, eta haien emaitzak 2015ean ikusgarriak izatea, baina, batez ere, 2016an, azken xedea denboran iraungo duten eta hedatuko diren lankidetzak modu berriak sortzea izanik.

Aurrekari horiek aintzat hartuta sinatu dute lankidetzak-hitzarmen hau, honako akordio hauetan oinarrituta:

AKORDIOAK

LEHENENGOA.- Bi erakunde publikoek hartu dute elkarlanean aritzeko konpromisoa, hala ACBA lurraldeko eta Donostiako eragileen artean proiektuak garatzeko, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua ekimenaren baitan. Ekintza horiek Europako Kultur Hiriburuaren programazio ofizialean eta ez ofizialean txertatu ahalko dira.



Hasiera batean, garatu beharreko arloak kultura, turismoa eta mugikortasunaren hobekuntza izango dira, betiere bi lurraldeetan. Hala ere, bien intereseko beste arlo batzuk ere erantsi ahalko dira. Lankidetzaren hitzarmen zehatzen bidez, garatu beharreko proiektu baikoitzean ekarlanak egingo dira.

BIGARRENA.- Ezarritako helburua betetzeko asmoz, hainbat ekintza gauzatzea aurreikusi da:

- Lankidetzaren ardatz bakoitzeko lurraldeko eragileen zerrenda bat osatzea.
- Egun dauden proiektu partekatuen errolda bat egitea.
- Lurraldeko eragileen sare bat abian jartzea mugaz gaindiko proiektuak azaleratzeko (mugaz gaindiko batzordeak sortzea, finantzamendu transbertsalak...).

HIRUGARRENA.- Zeregin horiek betetzeko honako zutabe hauetan oinarrituriko gobernantza-eredu bat planteatu dugu:

1. **Pilotaje Batzorde** bat (COPIL), Donostiako alkatea eta/edo ACBAko presidentea buru izango duena. Batzordearen berehalako helburua aintzat hartuta (2016ko Europako Kultur Hiriburua), presidente kargua txandakatu egingo dute, sei hilean behin, Donostiako alkateagandik hasita. Batzordea Donostiako Udaleko eta ACBAko ordezkari politikoek eta teknikoek osatuko dute, eta erakundeak berak izendatuko ditu; bestalde, lurralde bakoitzeko ordezkariak ere izango dira bertan (ordezkari bat gai bakoitzeko), presidenteak izendatuta. Ondoko funtzioak beteko ditu:
 - a. Mugaz gaindiko lankidetzaren dinamika bultzatzea.
 - b. Esparru-hitzarmeneko helburuak betetzen direla bermatzea (etengabeko ebaluazioa eta ex post).
 - c. Batzorde teknikoek proposaturiko proiektuei lehentasuna ematea.
 - d. Batzorde teknikoek proiektuak behar bezala gauzatzen dituzten jakitea, uneoro.



2. **Gaikako batzorde teknikoak/transbertsalak eta mugaz gairdikoak** Pilotaje Batzordeak izendatuak, Lurraldeko eragileek eta Donostiako Udaleko eta ACBAko teknikariek osatuko dute. Ondoko funtzioak beteko dituzte:
 - a. Mugaz gairdiko proiektuak identifikatuko/eraikiko dituzte.
 - b. Lehentasuna emango diete identifikaturiko mugaz gairdiko proiektuei.
 - c. COPILari proposatuko dizkiote mugaz gairdiko proiektu horiek.
 - d. Lehentasunezko proiektuak behar bezala gauzatzen direla eta COPIL jakinaren gainean dagoela bermatzuko dute.
3. **Koordinazioa.** Protokolo honetan ezarritakoa behar bezala jarraitzeko eta betetzeko, sinatu duten erakunde bakoitzaren ordezkariak, solaskide bat izendatuko du idazkari tekniko eta koordinazio lanak egiteko bestaldeko erakundeak izendatutakoarekin batera; elkarrekin, hurrengo hilabeteetarako lanerako plan bat osatuko dute.

LAUGARRENA.- Era berean, planteaturiko ekintzen jarraipena egiteko, Esparru Hitzarmena ebaluatzen duen prozesu bat jarriko da abian. Horretarako, adierazle sorta bat hartuko da oinarri, kultur hiriburuaren ekimenak hitzarmenean bildutako udalerrietan izan duen eragina neurtzeko.

BOSGARRENA.- Protokolo honek eragina izango du sinatzen den egunetik 2016ko abenduaren 31ra arte. Automatikoki luzatutzat joko da alderdiek ez badute iraungiarazteko eskaerarik egiten amaitu baino bi hilabete lehenago. Luzapenak urtebetekoak izango dira, eta, gehienez, bost urtez luzatu ahalko da.

Eta protokolo honekin ados daudela agertzeko, bi alderdiek izenpetu dute, goian adierazitako tokian eta egunean.

**DONOSTIAKO UDALEKO
ALKATEA**

ACBA-KO PRESIDENTEA

Sin.: Juan Karlos Izagirre Hortelano

Sin.: Jean-René Etchegaray